Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Mari Otxandiano

Otxandio, Bizkaia (1949)



Aurkibidea

Biografia



Zintak

OTX-054

- **Proiektua**: Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data**: 2013-11-30
- **Iraupena**: 10 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bittor kooperatibako gerente

- **Erref**: OTX-054/002
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:00:11. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
17-18 urterekin kontzientzia politikoa hartzen hasi zirenean, Gerediaga Elkartearen inguruan zebiltzan, eta orduan sartu zen Bittor euren bizitzan. Abertzalea zen Bittor, eta eragina izan zuen eurengan. Otxandio hustu egin zen gerra ostean. Jendeak alde egin zuen, Bittor tartean. Eibarretik itzuli zen taldea oso heterogeneo zen. Lantegia, kooperatiba bat montatu zuten. Bittor gerentea izan zen urte batzuetan. Oso inportantea izan zen Otxandiorentzat. Etxe kooperatiba bat ere montatu zuen. Ekonomia aldetik eragin handia izan zuen. Horiek denak alde batera utzi eta kultura eta hizkuntzan zentratu zen.

2. Pertsona selektiboa zen

- **Erref**: OTX-054/004
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Eragile bat izan da Bittor. Akats txiki bat bazuen: selektibo samarra zen. Pertsona batzuk aukeratzen zituen gero eragina izan zezaten beste pertsona batzuengan. Oso zuhurra zen, argia. Ez zuen alferriko lanik egiten. Frankismo garaia zen. Ezkutuan zeuden gauzak ikusten laguntzen zieten.

3. Paranoiko samarra erregimenaren zelatariak zirela eta

- **Erref**: OTX-054/006
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:04:42. **Bukatu**: 00:08:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Talde politiko asko zegoen, baina Bittorrek ez zuen parte hartzen foro zabaletan. Berak bere ikuspegia zuen, oso abertzalea. Besteak argitzeko beharra sentitzen zuen. Publikoan hitz egiteko ez zuen erraztasunik. Francoren denboran kontrol handia zegoen erregimenaren aldetik. Bittor paranoiko samarra zen, "mania persecutoria" apur bat bazeukan. Bera ahalegintzen zen Bittor lasaitzen. Baina sarri arrazoia zeukan. Ez du uste inork begi txarrez ikusten zuenik. Inori ez zion kalte egin, eta ostera herriari mesede agin, bai. Austeritate handiz bizi zen, eta inoiz entzuten ziren herrian berari buruzko komentarioak.

4. Euskara historia interpretatzeko tresna

- **Erref**: OTX-054/007
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:08:53. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
1958an sortu zuten 'Talleres Ochandiano'. Gero 'Rochman' bihurtu zen, eta gaur egun 'Ulma' da. Oso garrantzitsua izan da herriarentzat. Gustura egoten ziren berarekin berbetan, batez ere hizkuntza kontuez: hitzen erroak, jatorriak eta horrelakoak. Intuizio handia zuen loturak egiteko, erroak topatzeko... Hizkuntza historia interpretatzeko tresna bezala erabiltzen zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com